

ARABAKO ORDEZKARITZA ZABALTZEAN

Gasteiz, 1982-III-26

Fr. Luis Villasante-Euskaltzainburua

Euskaltzainburuaren hitzak:

Hezkuntzako Kontseilari, Etxenike jauna,
Felipe Martin jauna, Arabako Diputazioaren Ordezkarria,
Euskaltzaindiko lagunak
Jaun-Andreak:

Zuri, Peli Martin jaun horri, zuzendu dizkiguzun hitzengatik, egin diguzun harreragatik eta Euskaltzaindiari eskeintzen diozun Ordezkaritza galant, eder eta aukerako honengatik, eskerrak bihurtzen dizkitzut bihotz-bihotzez! Eta berdin Arabako Diputazioko jaun guztioi.

Euskaltzaindia, Euskal-Herriko lau Diputazioen ume edo sorkaria dela, guztiok dakite. Horregatik, gure asmoa, bai lehen eta bai orai ere, gure jokaera, beti izan da lau Diputazio horiekin har-eman leial eta iraunkorretan egotea. Arabako Diputazioarekin, gainera, aparteko modu batean zorretan dago Euskaltzaindia, zeren-eta, urterik txarretan ere, hemendik izan baititu laguntza handiak, eta hori guretzat ahaztu ezina da.

Euskaltzaindiaren galtzarrean beti izan ditugu arabarrak. Hasiberri hartan, hantzen Aita Olabide, euskaltzain osoa, orai Endrike Knörr jauna den bezala. Euskaltzain ohorezkoen artean hor ditugu Odon Apraiz eta Gerardo López de Gereñu jaunak. Urgazleen artean, berriz, hainbat: Federico Barrenengoa, Antonio Berrueta, Peli Martin, Pedro Pujana, Manuel Ruiz Urrestarazu, Pedro Sancristoval, Patxi Urribarren...

Euskaltzaindiak azken urteotan maiz egin ditu ospakizunak eta batzarre agiriak Arabako lurretan. Gogoan ditut, guztiz hunkigarriak izan zirelako, Sabandon, Okondon eta Aramaion egin zirenak. Gasteizen, berriz, Odon Apraiz jaunaren omenezkoa, Euskaltzaindiko sorreraren urrezko ezteiak ospatu zirenekoa, Knörr jaunaren sarrera egunekoa, etab.

Gure amets zaharra zen, beste hiriburuetan bezala, hemen Gasteizen ere Ordezkaritza bat izatea. Horren beharra geroago eta premiatsuagoa zela ikusten genuen. Izan ere, edozeinek daki azken urteotan zer-nolako hazkunde miragarria eta garrantzia hartu duen Gasteizko hiri zahar baina berritu honek. Makina bat urtez, behin-behineko irtenbide bezala, Ordezkaritza hori Institución Sancho el Sabio delakoan

eta gero, Filosofi eta Letren Fakultatean egon da kokatua. Baina azkenean geure Bulegoak jartzeko nahi eta behar genuen tokia, eta ez nolana hikoia, guztiz egokia eta taxuzkoa baizik, Arabako Diputazioari esker, izan dugu, Vicente Goikoetxea kaleko etxe honetan. Gaur ospatzen dugu, bada, bulego horien estreinatzea.

Euskal-Herriko hiriburuetan Euskaltzaindiak dituen Ordezkaritza edo bulego hauek, zertarako dira? Noski, Euskaltzaindiari dagozkionetan, eskualde bakoitzean lan egiteko; beroietara, argitasun edo laguntza eske jotzen dutenei kasu emateko, hel-du diren eskabide edo galderen arta izateko. Hortaz gainera, Euskaltzaindiak asmo-tan du lan plangintza orokor bat eratzea, eta plangintza horretan Ordezkaritza bakoitzari bere sail berezia seinatzea. Begiz joa eta hautatua du jadanik hemengoari, Gasteizkoari, emango zaion arloa, hots, Hiztegegintzako batzordea eta lantegia hementxe kokatzea. Hondarribiko bileran Hiztegegintza batzorde hori sortzea erabaki zen. Eta gaur-egun Gasteizen ditugunaz geroz sail honetako langile nagusiak —Mitxelena jauna, Ibon Sarasola eta Knörr— hementxe jarri nahi dugu Hiztegegintzako geure lantegia.

Uste dugu, bada, gaur estreinatzen dugun tokiak etorkizun arraia izango duela bere ondotik. Garrantzi handiko urratsa ematen ari garela, alegia, bulego berri hauek zabaltzean.

Bilboko gure bulego berriak zabaldu zirenean esan nuena errepikatuko dut: Euskaltzaindia Euskal-Herriko lau Diputazioek sortua da. Ezin hautsizko lokarriak ditu, beraz, Diputazio horiekin. Gu orai ere horretan gaude. Diputazioen itzalpean egin nahi dugu geure lana. Arabako Diputazioak eman dizkigun bulego berri eta eder hauekin lotura horiek sendotu besterik ez dira egingo. Emaitza honengatik Euskaltzaindiak bere esker ona agertu nahi dio Arabako Diputazioari.

* * *

Excmo. Sr. D. Peli Martin Latorre

Sres. miembros de Eusko Ikaskuntza, de la Sociedad de Amigos del Pais y de Euskaltzaindia

Señoras, Señores:

En este día en que la Real Academia de la Lengua Vasca, inaugura o estrena su sede o Delegación de Alava, nuestra primera y obligada palabra quiere ser de reconocimiento y gratitud hacia la Excm. Diputación Foral de esta provincia y en particular hacia el Sr. Diputado Peli Martin Latorre, que ha querido venir en persona a presidir esta inauguración.

En calidad de Presidente de Euskaltzaindia, me limitaré a recordar brevemente los lazos con los que la Academia de la Lengua Vasca ha estado en todo momento, desde su fundación, vinculada a esta provincia de Alava y a su Diputación Foral. Euskaltzaindia fue fundada, como es sabido, en 1918-1919, por las cuatro Diputaciones de nuestro país, o sea, de Alava, Guipúzcoa, Navarra y Vizcaya. Las cuatro de mancomún se comprometieron a darle su respaldo, reconocimiento y ayuda. Y por lo que respecta a la de Alava podemos decir, y debemos decir, que aun en años difíciles para nuestra Institución, la Diputación de esta Provincia se ha señalado por su particular atención y ayuda a la Academia.

Euskaltzaindia, por su parte, siempre ha procurado mantenerse en esta línea fundacional u originaria; queremos decir, que su propósito, lo mismo antes que ahora, es mantener y aun robustecer, si cabe, sus lazos de dependencia con las mencionadas Diputaciones. Por ello mismo, las Delegaciones que en las capitales del país tenemos, queremos que, a poder ser, estén ubicadas en locales de la respectiva Diputación.

Y por lo que se refiere a la presencia de Alava en el seno de Euskaltzaindia, no estará de más recordar que ya desde el principio, un vitoriano, el P. Olabide, fue miembro de número, como lo es ahora el Sr. Enrique Knörr. Entre los académicos de honor actuales figuran los Sres. Odón de Apraiz y Gerardo López de Guereñu. Entre los académicos correspondientes, los señores Federico Barrenengoa, Antonio Berrueta, Pedro Pujana, Manuel Ruiz Urrestarazu, Patxi Urribarren. Mención especial merecen los también académicos correspondientes señores Peli Martín Latorre y Pedro Sancristóval, ya que el primero es diputado foral y presidente del Consejo de Cultura y el segundo Secretario del mismo en la Diputación Foral de Alava.

En estos últimos años la Academia ha celebrado bastantes actos públicos, conmemoraciones de efemérides, etc., en tierras de Alava. Así, por ejemplo, se celebraron actos entrañables en Sabando en honor de Gámiz, en Oquendo en honor de Ulibarri Galindez, en Aramayona (donde también este año se va a volver a celebrar otro en honor de Barrutia). En cuanto a la vieja Gasteiz, han sido numerosos los actos o sesiones públicas aquí celebrados. Mencionaré particularmente el homenaje al Sr. Odón de Apraiz, el acto de recepción del académico Sr. Enrique Knörr, la conmemoración de las bodas de oro de la fundación de la Academia, etc.

Nuestro viejo sueño era contar en la capital alavesa con una delegación, así como contamos ya con ella en las otras capitales del país; y Delegación, a poder ser, ubicada en la Diputación. El palacio de la Diputación de Alava es, como todos sabéis, pequeño, y está ocupado al tope. Como soluciones provisionales, hemos contado en estos últimos años con los locales de la Institución Sancho el Sabio y posteriormente con un despacho en la Facultad de Filosofía y Letras. Pero, por fin, se ha llegado a la solución definitiva e ideal, gracias a la esplendidez de la Excma. Diputación Foral de Alava, con estos magníficos locales de la calle Vicente Goicoechea, que, según me informa nuestro Vicesecretario Sr. Lizundia, hasta ahora han servido de oficinas del Parlamento Vasco. Alava cuenta desde este momento con una Delegación adecuada y apta de Euskaltzaindia, ubicada en estos locales que pertenecen a la Excma. Diputación Foral de Alava. Gracias a ella.

Y bien, dirá tal vez alguien: ¿Para qué son estas Delegaciones? ¿Qué se va a hacer en ellas? Triste sería, efectivamente, ocupar unos locales, si en ellos no se va a hacer un trabajo que justifique su ocupación.

El primer trabajo de las Delegaciones de Euskaltzaindia es atender en ellas al despacho de las consultas y asuntos relacionados con la lengua vasca, provenientes de la respectiva provincia o región. Al frente, como director responsable de cada Delegación, Euskaltzaindia pone a un académico de número que a poder ser resida en el lugar donde está ubicada la delegación. En nuestro caso el director responsable de la Delegación de Alava es el académico de número Sr. Enrique Knörr.

Aparte de esto, la Academia quiere planificar su trabajo asignando a cada Delegación una parcela peculiar o propia de sus grandes cometidos. Y, en concreto, en esta Delegación de Alava se ha pensado centralizar todo lo relativo a la labor de Dic-

cionario. Para empezar, en la sesión académica que se ha celebrado hoy mismo aquí, se ha decidido la constitución de la Comisión de Diccionario, que tendrá en esta Delegación sus locales para sus reuniones, para efectuar su trabajo, para guardar los ficheros, libros, material, etc. Podrá extrañarse más de uno de que la Academia no tuviera hasta el presente una Comisión de Diccionario, siendo éste uno de sus primeros y más grandes cometidos; pero así es. Esto, por otra parte, no quiere decir que hasta ahora no haya trabajado en este campo, sino que Euskaltzaindia se veía obligada a hacer las cosas como podía, dada la penuria de medios y estrechez en que se ha movido. Desde hace años tiene encomendada al académico Sr. Michelena la preparación de un Diccionario General. También el señor Ibon Sarasola trae entre manos otro, vinculado de algún modo con Euskaltzaindia. Y, en fin, está en proyecto el Diccionario llamado "hiritartua" o urbano, del que se siente particular necesidad o urgencia. Como se da la circunstancia de que tanto el Sr. Michelena, como el Sr. Sarasola, lo mismo que el Sr. Knörr, que trabaja en la edición del diccionario de Harriet, viven aquí en Vitoria, parecía lógico y natural, una vez que contamos con locales adecuados, centralizar y ubicar en la Delegación de Alava, todo lo relativo a esta labor de lexicografía, de tanta importancia para el futuro de la lengua. La Comisión que hoy se ha nombrado, tan pronto como eche a andar, ella misma irá desbrozando y esbozando su plan concreto, que yo, naturalmente, no lo voy a definir aquí, ya que el camino, como es sabido, se busca y se hace andando.

En todo caso creemos que hoy se han puesto los cimientos de algo que está llamado a tener considerable trascendencia para el futuro del idioma vasco. No es ciertamente el trabajo que aquí se va a realizar un trabajo de relumbrón, espectacular, de sensacionalismo, quiero decir, de esos que atraen la atención del gran público; sino más bien trabajo callado, oscuro y prolongado, pero todos estamos de acuerdo en que, al fin y al cabo y en definitiva, este es el trabajo que queda, el que produce frutos permanentes y duraderos.

Sólo me resta felicitarles a los miembros de la nueva Comisión y reiterar una vez más las gracias a la Excma. Diputación Foral de Alava.

He dicho.